



**Día internacional del migrante • Etorकिन nazioarteko eguna**  
**Journé internationale des migrants • International migrants day • اليوم الدولي للمهاجرين**

## **DENOK GARA LANGILE KLASEA**

### **No a las discriminaciones**

Cada 18 de Diciembre se celebra el día internacional del trabajador inmigrante. Es una fecha apropiada para reflexionar sobre las causas que provocan las migraciones y, sobre todo, para denunciar la falta de derechos laborales y sociales de las personas inmigrantes. Es también una fecha donde, como cada año, ELA renueva su compromiso con todos aquellos, que sin distinción de origen o cultura, conforman la clase trabajadora en Euskal Herria.

#### **¿Qué se esconde detrás de las migraciones?**

No existe una sola razón detrás de las migraciones pero, entre aquellas personas que se ven obligadas a desprenderse de sus familias y a abandonar sus países, existen generalmente razones económicas y sociales: desempleo, pobreza, falta de oportunidades, etc. Existe una verdad universal que dice que la pobreza es hija de la injusticia; si existe la pobreza es porque existe la injusticia.

Esta es la injusticia que aplica el modelo económico y social del capitalismo; la explotación y el expolio ilimitado de personas y recursos naturales; la mentira de un libre mercado que impone la ley del más fuerte y que ahoga con la soga de una deuda externa "ilegitima e impagable" las posibilidades de desarrollo de los países pobres.

#### **El racismo institucional**

Durante los años de crecimiento económico, los mismos países "ricos" han necesitado de la inmigración para solucionar problemas del mercado de trabajo tales como la falta de mano de obra o garantizar cotizantes para las futuras pensiones. En muchos casos, han favorecido empleos mayoritariamente en condiciones de precariedad, con bajos salarios, temporales y con una mayor tasa de accidentes y muertes en el trabajo. En otros casos, lo han hecho bajo la amenaza y la inseguridad de la no renovación de permisos y el riesgo de detención o expulsión solo por una falta administrativa.

Ahora, sin embargo, en esta crisis económica y social generada por Gobiernos y el mundo financiero, hay quien pretende responsabilizar a los y las inmigrantes de las trágicas consecuencias que vivimos.

Los Gobiernos, mediante el racismo institucional, solo tienen como política de inmigración, los recortes y forzar a las personas inmigrantes a retornar a sus países de origen.

La crisis y la política de recortes, que nos afecta al conjunto de los trabajadores-as, ha sido particularmente dura con el colectivo de inmigrantes: la reforma de la ley de extranjería, los desahucios, la denegación de la tarjeta sanitaria por parte del Gobierno Español o la modificación para dificultar el acceso de la renta básica en Navarra y la Ley de garantía de ingresos en la CAV.

#### **No hay sociedad democrática sin derechos**

ELA quiere llamar la atención sobre la contradicción que supone que en una sociedad convivan personas con las mismas obligaciones pero con diferentes derechos. Por ello, exige a los gobiernos que asuman la condición de ciudadanía y reconozca los derechos de toda persona que vive y trabaja en esta sociedad. ELA cree que es imprescindible un cambio en las políticas sociales y laborales. Hay que ser inflexibles al exigir la igualdad de condiciones laborales para todos-as, combatir la discriminación y la explotación laboral.

Ante el intento de aquellos sectores (patronal, determinados partidos políticos, medios de comunicación...) de "criminalizar" la inmigración, ELA denunciará toda acción que intente dividir a la clase trabajadora. Por ello considera importante rechazar actitudes racistas o xenofobas en contra de cualquier persona.

Nuestra acción sindical va a continuar centrándose en defender a la gente más desfavorecida, a la más castigada, porque creemos que es importante no olvidar que entre todos y todas formamos una sola clase, la clase trabajadora.





**Día internacional del migrante • Etorkinen nazioarteko eguna**  
**Journée internationale des migrants • International migrants day • اليوم الدولي للمهاجرين**

## **DENOK GARA LANGILE KLASEA**

### **No a las discriminaciones**

Abenduaren 18ro langile etorkinaren nazioarteko eguna ospatzen da. Migrazioa eragiten duten arrazoen inguruan hausnartzeko data egokia da, eta, batez ere, pertsona etorkinen lan eskubide eta sozialen falta salatzen. Data honen bueltan, urtero bezala, ELAk bere konpromisoa berritu nahi du Euskal Herriko langile-klasea osatzen duten horiekin, bere jatorri edo kulturarekiko inolako bereizketarik gabe.

#### **Zer ezkututzen da migrazioen atzean?**

Ez dago arrazoi bakar bat migrazioen atzean, baina, euren familiak atzean utzi eta euren herrialdeak uztera behartuak ikusten diren pertsona horietan, normalean arrazoi ekonomiko eta sozialak daude: langabezia, pobrezia, aukeren falta... Pobrezia bidegabekeriaren alaba dela dioen egi unibertsal bat existitzen da; pobrezia baldin badago bidegabekeria existitzen delako da.

Hori da kapitalismoaren eredu ekonomiko eta sozialak aplikatzen duen bidegabekeria; pertsonen eta baliabide naturalen esplotazio eta espoliazio mugagabea. Merkatu libre baten gezurra, indartsuenaren legea inposatzen duena eta "legez kontrakoa eta ordainezina" den kanpo-zorren sokarekin herrialde pobreen garapen aukerak itotzen dituena.

#### **Arrazakeria instituzionala**

Hazkunde ekonomikoaren garaian, herrialde "aberatsek" immigrazioa behar izan dute lan-merkatuak sortzen zizkion arazoak konpontzeko: eskulan merkea edo etorkizuneko pentsioentzako kotizatzaileak bermatzea. Kasu askotan, nagusiki prekaritatean murgildutako enpleguak laguntzen dituzte, soldata baxuekin, aldi-baterakoak eta ezbehar eta laneko heriotza tasa handiagoarekin. Beste kasu batzuetan, euren baimenak berrituko ez dituztenaren mehatxu eta segurtasun falta-pean, edo akats administratibo batengatik kaleratuko dituztenaren arrisku-pean.

Orain, hala ere, Gobernuak eta finantzen munduak sortutako krisi ekonomiko eta sozial honetan, badago etorkinak pairatzen ditugun ondorio tragikoen errua eta ardura etorkinei leporatzen dienik. Gobernuak, arrazakeria

instituzionala medio, immigrazio politika bakarra dute: murrizketak eta etorkinak euren jatorrizko herrialdetara itzuli daitezzen behartzea.

Krisia eta murrizketa politikak, langile guztiei berdin eragiten diguten elementuak, bereziki gogorak izan dira etorkinen kolektiboarekin: atzerriartasun legearen erreforma, etxe-kaleratzeak, Espainiako gobernuak ukatutako osasun txartela, Nafarroan oinarritako errenta jasotzeko oztopoak edo Euskal Autonomia Erkidegoan Diru-sarreraren Bermerako Legea aldatu izana hau guztiaren adibide dira.

#### **Ez dago eskubiderik gabeko gizarte demokratikorik**

ELAk arreta deitu nahi du obligazio berdina baina eskubide ezberdinekin bizi diren pertsonen osatutako gizarte batek suposatzen dituen kontraesanen inguruan. Horregatik, gobernuak exijitu egiten die herritartasun kondizioa bere egin dezatela eta gizarte honetan bizi eta lan egiten duten pertsona ororen eskubideak onartu ditzatela. ELAren ustez ezinbestekoa da lan eta gizarte politiken aldaketa. Irmoa izan beharra dago guztiontzako lan-baldintzen berdintasuna exijitzeko orduan, bazterkeriaren eta lan zapalkuntzaren aurka borrokatzeko.

Zenbait sektorek -patronala, hainbat alderdi politiko, zenbait hedabide...- immigrazioa "kriminalizatzeko" egiten duten saiakeraren aurka, ELAk langile-klasea zatitzeko asmoa duen ekintza oro salatuko du. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu pertsona ororen aurkako jarrera arrazista edo xenofoboak errefusatzea.

Gure ekintza sindikala pertsona zapalduen defentsan oinarritzen jarraituko dugu, jenderik zigortuena. Uste dugu garrantzitsua dela ez ahaztea guztion artean klase bakar bat osatzen dugula, langile-klasea.

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**